

IRAKURKETA

LANTZEKO GILTZARRIAK



Violeta Monreal

Zeren
beldur zara?

*«Beldurra erabat kentzeko, har ezazu arnasa poliki-poliki,
gogora ezazu istoriorik politena, har ezazu arnasa sakonki eta has zaitez berriro»
Violeta Monreal*

Gomendatutako adina:
5 urtetik aurrera

Irakurri. Bizi!

Haur Hezkuntza - 5 urte.
Lehen Hezkuntza - Lehenengo zikloa

LIBURUA

GAIA:

Liburu hau oso xumea da. Maritxuk aurkezten digu, gizakiak oso ongi ezagutzen dituen eta minik ematen ez duen armiarma txiki batek. Betegarri samur batzuen bidez Maritxuk beldur izateko umeek dituzten ohiko arrazoiak kontatzen dizkigu: ekaitzak, gaixotasunak, bakardadea, altuera... Liburuak zehazteko oso erraza den sentimendu bati ekiten dio eta umea bere esperientziak arrazoitzeke eta interpretatzeko eta bere neurrian baloratzeko gai izatea ahalbidetuko du.

IDAZLEA ETA IRUDIGILEA:

Violeta Monreal Oviedon jaio zen, 1963an. Arte Ederretan lizentziatua, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko Zuzendaritzako bekaduna da eta bere proiektuaren gai nagusia umeek marrazkiak nola hautematen eta irudikatzen dituzten da.

Haur eta gazteentzako testuak ilustratzea du lanbide. Bere ilustrazio lanak Espainiako argitaletxerik garrantzitsuenek argitaratu dituzte. Everest Argitaletxearentzat *Tito, tito: rimas, adivinanzas y juegos infantiles*-en ilustrazioak egin ditu eta *Zergatik zaude triste?* ere idatzi eta ilustratu du.

CURRICULUM ERREFERENTZIAK:

KONTZEPTUAK:

Liburuaren gai nagusi horren barruan umearen beraren nortasuna hezitzearekin zerikusia duten kontzeptuak biltzen dira eta haurrari aukera ematen dio bere segurtasun ezari eta beldurrei aurre egiteko. Nork bere burua ezagutzen, autonomia pertsonala eta autokonfiantza lagundu egiten du, hau izanik besteenganako hurbilketa hasteko eta beste balore batzuekiko begirunerako oinarria.

KONTZEPTUEI LOTUTAKO HITZAK:

- Beldurra, ikara, dragoia, amets gaiztoa, iluntasuna, gerra, heriotza, gaixotasuna, globoa, hegazkina, ekaitza, tximista, trumoi, mina, bakardadea, sorginak, mamuak, oihana, basapiztia, kalea.

PROZEDURAK:

- Irudien iruzkinak eta interpretazioa
- Beldurra eragiten diguten arrazoiei buruzko marrazkiak egin
- Beldurra zergatik sentitzen dugun aztertu
- Musika desberdinak jarri eta beldur desberdinekin lotu
- Egoera batzuk antzeztu
- Benetako arrisku egoerak argi eta garbi behatu eta zehaztu, ongi bereiziz benetako arrisku objektiboak eta beldur irreal edo subjektiboak
- Beldur sentimendua hobetzen laguntzen duten ekintzak idatzi.

JARRERAK:

Liburu honetan, beste edozein kontzeptu guztien gainera, oinarritzat da jarrera positiboak azpimarratzea; bere gatazkak konpontzeko umeak izango duen jarrera neurri handi batean horren arabera egongo baita. Beldur subjektibo batzuk desmitifikatu eta beste gai zail batzuetan segurtasun jarrera sustatu

- Behaketa jarraibideak ezarri eta topikoak eta estereotipoak saihesteko iradokizunak eta estrategiak proposatu
- Elkarrizketa eta hausnarketa pertsonalak hartu lan ardatz nagusi gisa
- Norberaren eta besteen sentimenduekiko begirunea lagundu, arriskua benetan ezagututa eta elkarrizketa eta hausnarketaren bidez beldur batzuk gainditzea eta behar bezalako arretarekin ibiltzea lortzeko.

IRAKURKETARAKO LAGUNTZAK

ARGUMENTUA:

Maritxu armiarma txiki eta ziztrin bat da, baina beldur kontuetan aditua. Armiarmak mendeetan zehar bizi izan dira gizakien artean eta han goian, etxearen sabaian dagoen beren txokotik guri begira egon dira mendeetan eta mendeetan; batzuetan beldurtu eta izutu egiten gaituzte, baina gaitzuste handirik gabe; gizakiek beraiengana sentitzen duten ahuleziaz eta beldurraz baliatzen dira.

Testuan haurrek beraiek kontatzen digute zein diren beldurra eragiten dieten gauzak. Batzuk ohiko beldurrak dira, dragoiak eta mamuak adibidez; edo beldur zehatzagoak: lehoia eta ekaitzak; hain zehatzak ez diren baina nabarmenak diren beldurrak: iluntasun eta amets gaiztoak; antzinatik datozen beldurrak: heriotza, mina; beldur abstraktuagoak: bakardadea; egiazko beldurrak edo fobiak direnak: altuerak, ekaitza; gizakiarenak berezkoak diren beldurrak: gaixotasunak eta gerrak. Beraz, testuan zehar beldur mota asko azaltzen dira, irudimenak eragindako gauzarik hutsalenak edo txantxetan hartu ezin diren egoera errealak.

Beldurra izateko arrazoiak oso desberdinak izan daitezkeenez istorioa leku desberdinetan garatzen da: irudimenean ez beste inon aurki daitezkeen bazter fantastikoak, dragoia bizi den leizezuloa, lotako amets gaiztoak edo sorgin eta mamuak; beste leku batzuk askoz ere errealagoak dira: iluntasuna, kale bakartia, ekaitza...

PERTSONAIAK:

- *Maritxu*: armiarma txiki bat da, gizakien behatzaile ona, beldur kontuetan oso aditua eta umeen beldurrak zein diren beste inork baino hobeto daki.
- Gainerako protagonistak neska edo mutilak dira; *Zezenia* dragoien beldur da, *Eunate* amets gaiztoena, *Rebeka* iluntasunarena, *Elias* gerrena, *Nagore* heriotzak hunkitzen du, *Bizente* gaixotasunak, *Elena* altuerek, *Ladis* ekaitzek, *Danel* minak, *Urtsula* bakardadeak, *Rosana* sorgin eta mamuen beldur da, *Zigor* lehoiena, *Aitor* ez da seguru sentitzen hiri hutsean.
- *Rosana* eta bere ahizpa bikiak ematen dute konponbidea eta *Amaiak* jolas erraz bat proposatzen digu, guztiok erantzun beharreko azken galdera batekin. Zeren beldur zara?...

BALOREAK:

- Liburu honek nork bere beldurrei aurre egiteak duen garrantzia erakusten digu, norberaren esperientziak bere benetako neurrian arrazoitzeko eta interpretatzeko gai izateko eta horrela beldur horiek gainditzea, ulertzea eta besteenak errespetatzea lortzeko. Benetan garrantzitsua dena baloratzen lagunduko digu; umeek beren inguruan dituzten esperientziak nagusitasun eta lehia sentsazioa, edo alderantziz, porrot eta ezintasun sentsazioa emango diete.

ZE HAR LERROAK:

Liburu honek Lehen Hezkuntzako curriculumeko ia zehar lerro guztiak biltzen ditu:

- *Bakerako hezkuntza*: gerrari, heriotzari beldurra.
- *Bide hezkuntza*: hiriari eta kale hutsari, iluntasunari beldurra.
- *Ingurugiro hezkuntza*: animaliak (benetakoak edo alegiazkoak), ekaitzak.
- *Osasunerako hezkuntza*: gaixotasunak, mina, heriotza.
- *Giza eskubide eta Bakerako hezkuntza*: testu osoa norberaren buruarekiko eta besteekiko harremanei buruzkoa da.

PROPOSATUTAKO JARDUERAK

ALDEZ AURRETIK EGITEKO IDEIAK:

- Ikasgelako errealitatea ezagutzeko eta ume bakoitza zeren beldur den jakiteko azterketa txiki bat egin. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako Jarduera*)
- Gauza berrien aurrean azaldu ohi den jakinminaz baliatuz umea liburuak irakurtzera bultzatu. Hasteko, izenburuaren intepretazioaren inguruan elkarrizketa xumea proposatu: izenburuak iradokitzen dituen ideiak, nor izan daitekeen Maritxu, liburuak zeri buruzkoa izan daitekeen. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako Jarduera*)
- Ahal den neurrian armiarnekiko beldurra desmitifikatu. Horretarako ebakinekin collage txiki bat egin; mota, tamaina eta kolore desberdinetako armiarnekak marraztu, kartulina batean itsatsi eta liburuarekin lotutako lanak jartzeko hautatu dugun ikasgelako espazioan jarri, denok ongi ikusteko moduan. (*Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)

AZTERKETA:

- Dragoiak, sorginak eta mamuak. Alegiazko beste animalia batzuk bilatu eta benetakoengandik bereizi. Inguruko zein animalia beldur izan behar da? Ongi bereizi beldurra izatea eta arretaz ibiltzea. Animalia errealean elementuekin animalia fantastiko bat asmatu. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)
- Amets gaiztoak. Zer gertatzen da pertsona bat lotan dagoenean? Ametsen munduari buruzko iruzkinak egin, amets gaiztoak eta amets gozoak alderatuz. Hormirudi batean umeek gehien atsegin dituzten ametsak marraztu. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)
- Iluntasuna. Iluntasunaren beldur izateari buruzko hausnarketa egin, zehaztu ea iluntasunean beldurtzeko arrazoirik baden, kale ilunekin erlazionatu (beldur hau justifikatuta dago), iluntasunari buruzko esaldi xumeak idatzi. Iluntasuna marraztu. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)
- Gerra. Ilustrazioa behatu eta deskribatu: zer gertatzen zaio umeari? Zergatik ari da negarrez? Zer dauka eskuan eta zertarako erabiltzen da? Nork erabiltzen du? Gerrak ekiditeko erari buruz hitz egin, alternatibak eta konponbideak bilatu, elkarrizketa zein garrantzitsua den. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako Jarduera*)
- Heriotza. Heriotzaren gaia errespetuz aztertuko da, inola ere ez arinkeriaz. Ilustrazioan heriotzari buruzko sinbolismoak bilatuko ditugu, bere irudia eta mozorroak: kalea gurutzatzean erne ez ibiltzea, ezezagun baten eskutatik jasotako gozokia, xiringa, itsasoa edo ibaia. (*Hizkuntza eta Literatura Arlorako Jarduera*)
- Gaixotasunak eta mina. Gaixotasun batzuei eta minei buruz hitz egin; minei aurrea hartzeko zer egin deza-kegun; sendagaiak sendatzeko direla, nahiz eta batzuetan mingarriak izan daitezkeen (adibidez, xiringaren bidez sartzean). Gaixokiko eta osasungintzan lan egiten dutenekiko begirunea. (*Osasunerako Hezkuntza eta Hizkuntza eta Literatura Arlorako Jarduera*)
- Altuerak, hegan egiteari beldurra. Altueri beldurra izatearen arrazoiei buruz hausnartu, galdetu ea zenbat ume ibili diren noizbait hegazkinez eta konta dezatela izandako esperientzia. Hegazkin bidaiak bat antzeztu, aireportua, azafatak, pilotuak, janaria... (*Inguruaren Ezaguera eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Antzezpena*)
- Ekaitzak. Zer dira? Beren zergatiak eta –batzuetan arriskutsuak ez diren– ondorioak. Ekaitzak mendian edo basoan, zer egin behar dugun eta zer ez. Hormirudi handi bat egiteko ekaitz handi baten elementuak marraztu, moztu eta itsatsi. (*Inguruaren Ezaguera eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)
- Hiriko segurtasun eza. Trafikoaren arazoa, ezezagunak eta droga. Beldur hauek benetakoak direla ikasi, ez direla irudipenak edo fantasiak. Hitz egin kaleaz, bideko segurtasunaz, gune ilunez, ezezagunez, drogaren arazoaz, nork lagun gaitzakeen. (*Inguruaren Ezaguera Arlorako Jarduera*)
- Bakardadea. Taldean bizitzaren abantailak. Bakarrik dauden pertsonak, gure pertsona zaharrak, aiton-amonen istorioak, horiek dituzten beharrak: laguntasuna eta begirunea. Nabarmendu zein positiboa den guretzako denbora izatea, intimitate eskubidea. (*Osasunerako Hezkuntza Arlorako Jarduera*)

AZKEN SINTEsia:

Azken jarduera moduan, ume bakoitzak ondoko bertso hau osatuko du: “Inor ez harritzeko, ni _____-ren beldur naiz, eta nire izena _____ da”. Orriaren beste aldean bere beldurra marraztu ahal izango du. Ikasgela guztiko orriak koardernatu egingo dira eta horrela guztion artean idatzitako eta guztiok protagonista garen beste ipuin bat izango dugu gure liburutegirako. (*Hizkuntza eta Literatur Arlorako eta Arte Hezkuntza Arlorako Jarduera: Plastika*)

ORAIN ZEURE TXANDA DA - 1 (irakurri baino lehen...)

Aurkakoak elkarrekin lotu.

beldurgarria

ona

handia

atsegina

gaiztoa

txikia

itsusia




polita

ORAIN ZEURE TXANDA DA – 2 (irakurri ondoren...)

Testuan beldurra eragiten dizuten hitzak inguratu. Lau kopian.

ORAIN ZEURE TXANDA DA - 3 (Irakurri ondoren...)

Pertsonaia bakoitzaren izena idatzi eta ilustrazioak koloreztatu. Gero, beren beldurraren arrazoia marraztu.



Fitxa hau oso-osorik kopia daiteke gelan lan egin ahal izateko. Aizkorri argitaletxeak horretarako baimena ematen du.

NIRE LIBURUAREN OROITZAPENAK

Izenburua: _____

Idazlea: _____

Irudigilea: _____

Bilduma: _____

Argitaletxea: _____

Gehien eta gutxien gustatu zaidana: _____



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO...

Ziklo honetarako gomendatutako beste izenburu batzuk:

- ZERGATIK ZAUDE TRISTE?; Violeta Monreal
(Mendi Sorgindua bilduma – Aizkorri argitaletxea)
- JONAS ETA HOZKAILU BELDURTIA; Juan Kruz Igerabide
(Mendi Sorgindua bilduma – Aizkorri argitaletxea)
- JOANAREN ERREGIN AULKIA; Patxi Zubizarreta
(Mendi Sorgindua bilduma – Aizkorri argitaletxea)



Telefona: 94-423-75-99